

EDUKIA

2023ko DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, MUGIKORTASUN URRITUA DUTEN PERTSONENTZAKO BILBOKO AUTOTAXI-ZERBITZURAKO	2
1. ARTIKULUA. XEDEA	2
2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA	2
3. ARTIKULUA. ENTITATE LAGUNTZAILEAK	2
4. ARTIKULUA.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN BETEBEHARRAK	2
5. ARTIKULUA. ONURADUNAK	3
6. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK	3
7. ARTIKULUA.- AURREKONTU-KREDITUAK	4
8. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK	4
9. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN	4
10. ARTIKULUA. ESKABIDEAK	5
11. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA	5
12. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA	6
13. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA	6
14. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK	7
15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA	7

2023ko DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, MUGIKORTASUN URRITUA DUTEN PERTSONENTZAKO BILBOKO AUTOTAXI-ZERBITZURAKO

1. ARTIKULUA. XEDEA

1. Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioen esparruan, dirulaguntzen deialdia egin du aurrenekoz 2023an lerro berri baterako, hain zuzen ere, "Mugikortasun urritua duten pertsonentzako Bilboko autotaxi-zerbitzurako".
2. Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea Bilboko Udaleko taxi-lizentzien titularrei, bere lizentziari atxikitako ibilgailu egokituekin mugikortasun urritua duten pertsonen emandako zerbitzuetan hobariak izan ditzaten, hartara, taxi egokituaren flota handitzen laguntzeko eta, horrekin batera, erabiltzaile horientzako zerbitzua hobetzeko. Horrela, eta oraingoan, diruz lagundutako zerbitzuak mugikortasun urrituko pertsonen ematen zaizkiela egiaztatu ahal izateko, Bilboko Taxi Elkarteetako irratiek erregistratutako datuen laguntza behar da. Hala ere, bihar-etzi horrelako dirulaguntzen deialdiak egiten badira eta ezartzen diren tresna teknologikoek aukera ematen badute, dirulaguntza horien eremua zabaltzeko da.
3. Bilboko taxi-elkarteak Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera (aurrerantzean, 38/2003 Legea) eratutako dira eta horretarako dagokion hitzarmena sinatutako da.

2. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Deialdi honetako dirulaguntzak arau hauen menpe daude: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea, eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutako Erregelamendua; eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko bere entitate eta organismoek ematen dituzten dirulaguntzak arautzeko oinarriak, 2016ko ekainaren 30ean Udalbatzak onartutako ordenantza orokorraren bidez onetsiak —Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2016ko uztailaren alean (138. zenbakian)—.

3. ARTIKULUA. ENTITATE LAGUNTZAILEAK

1. Erakunde laguntzaileak izango dira, 38/2003 Legearen 12.1 artikuluen arabera, deialdi honekin batera doan lankidetzak hitzarmena formalizatzen duten Bilboko taxi-elkarteak. Erakunde horiek, organo emailearen izenean eta haren kontura jardunez, harekin lankidetzan jardungo dute dirulaguntzak kudeatzen (emandako dirulaguntzak banatzea eta agiri bidez justifikatzea), deialdi honetan eta goian aipatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera.

4. ARTIKULUA.- ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN BETEBEHARRAK

1. Bilboko taxi-elkarteak dirulaguntza horiek kudeatzeko erakunde laguntzaile dira, 38/2003 Legearen 12. artikuluan eta horrekin bat datozenetan eta lehen aipatutako hitzarmenean aipatzen diren izaera eta irismenarekin.

2. Erakunde laguntzaileak diren aldetik, konpromiso hauek hartzen dituzte Bilboko Udalarekin:
 - a) Taxi egokituko zerbitzua bermatzea, lehentasunezko esleipenarekin, eta zerbitzu hori eraginkorra eta nahikoa izan dadila. Horretarako, hurbilen dagoen ibilgailua esleituko dute, ezarritako banaketa-irizpideen arabera, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.
 - b) Dirulaguntza jasotzeko moduko taxi zerbitzu bakoitzari buruzko informazioa ematea Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari.
3. Irratiak esleitutako zerbitzuei dagokienez, emandako MMP zerbitzuei buruzko informazio hau Bilboko Udalari bidaltzeko konpromisoa hartu dute:
 - a) Itundutako zerbitzuaren kodea.
 - b) Lizenzia-zenbakia.
 - c) Zerbitzuaren eguna.
 - d) Zerbitzua zer ordutan eskatu den.
 - e) Esleipen-ordua.
 - f) Erabiltzailea jasotzeko puntuari dagokionez (tarifaren hasiera): ordua eta posizioa (GPS koordenatuak edo helbidea).
 - g) Aldez aurretik baimena emanda, erabiltzailearen harremanetarako telefonoa.
4. Era berean, Udalak emandako laguntzak lizentzien titularren artean banatu beharko dituzte, emandako zerbitzuak justifikatu ondoren eta Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari egiaztagiriak aurkeztu ondoren.
5. Elkarre bakoitzak 2023ko azaroaren 30a baino lehen bidaliko dio aurreko apartatuan aipatzen den informazioa Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari.
6. Udalak funtsak ematen dituenetik hilabeteko epean, elkarre Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailari bidaliko diote lizentzien titularren artean banatutako diruaren egiaztageria eta xehetasuna.
7. Elkarre funts horien kudeaketari buruz Udalak egin ditzakeen egiaztapen-jardueren mende jarriko dira, bai eta kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen bestelako egiaztapen- eta kontrol-ekintzen mende ere. Horretarako, eskatzen zaien informazio guztia emango diete.
8. Era berean, behartuta daude funtsak deialdi honen xede ez diren helburuetarako ez erabiltzera eta aplikatzekoa den araudian ezarritako gainerako betebeharrak betetzera.

5. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Bilboko Udalaren taxi-lizentziaren jabe diren pertsona fisikoak, betiere ibilgailu egokitu bat dutenean eta honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- a) 2023an, mugikortasun murriztua duten pertsonen zerbitzuak ematea, deialdi honetan ezarritako betekizunen arabera.
- b) Udalak deitutako berrikuspenak behar bezala egin eta gainditu izana.
- c) Ez egotea 38/2003 Legearen 13. artikularen 2. eta 3. apartatuetan ezarritako debekuetako batean ere.

6. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

1. Dirulaguntzen onuradunek 38/2003 Legearen 14. artikulua ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

2. Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, onuradunak ez du zorrik edukiko zergen arloan eta Gizarte Segurantzaz.
3. Ez da dirulaguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta, hura izapidetzeko orduan, artean ere dirulaguntza eskatu duena ez badago egunean Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta tributu-betebeharrak.
4. Deialdi honen onuradunek mugikortasun urriko pertsonentzako zerbitzuaren inguruko ikastaro, prestakuntza eta ekitaldietara joan beharko dute 2023. eta 2024. urteetan, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak hala eskatzen duenean.
5. Betekizun horiek bete ezean, gerta liteke onuradunak laguntzaren zati bat itzuli beharra, betekizunak betetzen ez direnetik hasi eta lehen aipatutako epearen artean jasotakoa.

7. ARTIKULUA.- AURREKONTU-KREDITUAK

- 1.- Deialdian eskaintzen diren dirulaguntzak Bilboko Udalak 2023 ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren 2023 21000 44110 4719900, PEP 2023/000152 partidaren kontura finantzatzen dira.
- 2.- Deialdi honetarako zenbatekoa BERROGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAIKA (49.711) EUROKOA da.
- 3.- Aurrekontu-zuzkidura handitu ahalko da, aurkeztutako eskabideak ikusita, deialdi berririk egin barik.

8. ARTIKULUA. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

- 1.- Laguntza horien zenbatekoa proportzionalki banatuko da oinarri hauetan xedatutakoaren arabera emandako eta justifikatutako zerbitzu guztien artean; zerbitzu bakoitzeko, gehienez ere, bost (5) euro emango dira.

9. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIN

- 1.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere eman dituen Administrazioa edo ente publiko edo pribatua, dela Estatukoa, Europar Batasunekoa edo nazioarteko organismoetakoa.
- 2.- Nolanahi ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere gainditu –berak bakarrik edo beste batzuekin batera- diruz lagundutako jardueraren kostua.
- 3.- Udal ebazpenaren ondoren, onuradunek beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten dirulaguntzak edo finantza-laguntzak jasotzen badituzte proiektu bererako, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik hilabete igaro baino lehenago.

10. ARTIKULUA. ESKABIDEAK.

1. Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da Udalaren webgunean (www.bilbao.eus); San Agustin Eraikineko beheko solairuan; Barrutiko Udal Bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan.
2. Dirulaguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eskabidea (I. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:
 - a) Eskatzailearen NANaren fotokopia.
 - b) Erantzukizunpeko aitortpena, 38/2003 Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekurik ez izateari buruzkoa. (II. Eranskina).
 - c) Adierazpen espresu eta erantzukizunpekoa, Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak errekerituko dion formazio espezifikoan parte hartu duelakoa (II. Eranskina).
 - d) Udalari nork bere borondatez emandako baimena, tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituen jakiteko datuak biltzeko. II. Eranskina
 - e) Aurreko atalean aurreikusitako baimena ematen ez bada edo Udalak ezin badu eskuratu, tributu-zorrik eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak, zerga-administrazio eskudunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak, hurrenez hurren, urte barruan emanak.
 - f) Eskatutako laguntzen gaineko erantzukizunpeko adierazpena. (III. Eranskina).

3.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein eratara bidal daitezke.

4.- Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko azaroaren 24an amaituko da. Informazioa Udalaren webgunean ere eskuragarri dago (bilbao.eus), Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren informazioaren barruan.

11. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Dirulaguntzetarako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten pertsona fisikoei banatuko zaie, 6. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera.

2.- Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Garraio Zuzendariordezari atxikitako teknikariek osatuko dute Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa.

Organo izapidegile horrek ebazpen-proposamena egingo du, honako hauek egiaztatu ondoren:

- Garraio Zuzendariordezako udal-ikuskaritzak txostena eman duela, lizentziaren titularrak urteko berrikuspen arrunta gainditu duela adieraziz.
- Onuradunak deialdi honetako 13. artikuluan jasotako gainerako baldintzak eta betekizunak betetzen dituela.

- Onuradunak ez daukala zorrik zergen alorrean eta Gizarte Segurantzarekin, eta ez duela epe exekutiboan inolako zerga-zehapenik edo -zorrik Udal honekin, salbu eta geroratuta edo zatituta badaude edo haien betearazpena etenda edo *sub iudice* badago.

3.- Gobernu Batzordeak edo hark eskuordetutakoak ebatziko du prozedurari buruz.

Eskaerari buruz ebatzi eta interesdunei ebazpena jakinarazteko epea, gehienez ere, hiru hilekoa izango da, eskabidea aurkeztu zenetik zenbatzen hasita, edo ongitzeko errekeritu diren agiriak aurkezten direnetik hasita, baldin eta halakorik eskatu bada.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea igaro ondoren, eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela jo ahalko da.

Eskatutako dirulaguntza onesteko edo ezesteko ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

Ebazpenaren kontra, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko da, ebazpena eman duen organoan, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jar daiteke, administrazioarekiko auzien epaitegien artean dagokion hartan, jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean.

4.- Izapidetzeko eta ebazteko egintzak jakinarazpen pertsonalaren bidez jakinaraziko dira.

12. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Laguntza erakunde laguntzaileei ordainduko zaie. Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren ordezkariak emango du onartutako dirulaguntza ordaintzeko ebazpena, eta onuradunei eta entitate laguntzaileei jakinaraziko zaie; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan haren izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

13. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Udalak ofizioz egiaztatuko du lizentziaren titularrak dagokion urteko berrikuspena gainditu duela.

Hobariaren xede izango dira deialdi hau argitaratzen den egunetik 2023ko azaroaren 15era bitartean egindako zerbitzuak, baldin eta honela justifikatzen badira:

Dagokion emisoraren ardura duen elkarteko presidenteak sinatutako egiaztagiria, honako hauek jasotzen dituenak:

- a) Lizentzia-zenbakia.
- b) Itundutako zerbitzuaren kodea.
- c) Zerbitzuaren eguna.
- d) Zerbitzua zer ordutan eskatu den.
- e) Esleipen-ordua.
- f) Erabiltzailea jasotzeko puntuari dagokionez (tarifaren hasiera): ordua eta posizioa (GPS koordinatuak edo helbidea).

- g) Aldez aurretik baimena emanda, erabiltzailearen harremanetarako telefonoa.

14. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkutatzen badira, dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, dirulaguntza jasotzen den unetik aurrera.

15. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako dirulaguntza guztiak argitaratuko dira udalaren web-orrian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Era berean, dirulaguntzen publizitatea egingo da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez, Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2023ko maiatzaren 9an
Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila